# BEZEROEKIKO HARREMANAK




Hasteko, ekoitzitako lehenengo produktuak, kirolarekin zerikusia duten dendetan aurkituko dira, bereziki ziklismo giroko **salguneetan** salduko genituzke. Gure produktuak bezeroengan izandako arrakasta edo interesa ikusi eta lortutako etekinak aztertu ondoren, gure enpresa handitzea nahiko genuke. Horretarako, gure denda propioak eraikitzen hasiko ginateke, hasiera batean hiri jakin batzuetan zabalduko genituzke, geroago denda internazionalak sortuz. Horrekin batera, **webgune** bat sortuko dugu online erosteko aukera ere izateko, horrek bezeroari erosteko orduan eskainiko dion erosotasuna aparte, produktuaren **banaketa zuzena** eta azkarra izango zen. Webgunearen link-a ondorengoa izango litzateke:

- www.seizen.net

Bertan eskaerak era oso errazean egiteko aukera izan arren, informazioa lortzeko aukera ere izango dute, gure produktua oso ondo ezagutzeko; jada merkatuan dauden modeloak ikusi, erabilera eta jakin beharreko beste informazio guztiaz gain, bezeroak gure **webgunean parte hartzeko** aukera izango dute, modu sinple batean: kontu bat sortzen. Hau da, gure bezero

desberdinak gure produktuarekiko beren iritzia adierazi dezakete komentario, argazki nahiz bideo baten bidez. Horrela, produktua lortzeko aukera izateaz gain, **bezeroak elkar komunikatu** daitezke, edozein zalantza argitzeko, beren iritzia emateko eta baita ere gure produktua baloratzeko aukera izango dute.

